

EAJk eta EAK itxi dute Jaurlaritzarako Ituna, eta EHren laguntza bilatuko dute

Hamar sailetatik zazpi izango dituzte jeltzaleek, eta orain dituen hirurak EAK

Juan Jose Ibarretxe jeltzalea aurkeztu dute EAJk eta EAK seigarren legegintzaldiko lehendakari izateko. Ituna atzo goizean egin zuten, eta ondoren Gasteizko Legebiltzarrean aurkeztu zuten hautagaitza. Orain EHk erabaki beharko du osoko bilkuran Ibarretxeren inbestidura laguntzen duen.

Erredakzioa / Gasteiz



Patxi Ormazabalek eta Joseba Egibarrek elkarrekin aurkeztu zuten Ibarretxeren hautagaitza. GUTIERREZ EFE

GIDOIARI segituz, EAJk eta EAK atzo hitzartu zuten Jaurlaritzarako programa. Azken arazoak konpondu zituzten, eta akordioa lau urterako izango da, udal hauteskundeen emaitzatik at. Ekainean egoera berriro aztertuko dute, eta aldaketaren bat egin beharko balitz, bien artean hitzartu beharko lukete.

Bi alderdi abertzaleak EHren sostengua bilatzen ari dira. Izan ere, ez dute gehiengo absolutua Legebiltzarrean, eta PPK Carlos Iturzaiz aurkeztu izana beharrezko egingo du EHren laguntza. Seguruenik ez du balioko abstentzioa, PSE-EEK ez duelako argitu Iturzaizen alde agertuko den edo ez.

Gobernu hitzarmena ezker abertzaleko kideen eskuetara iritsi zen atzo. Arnaldo Otegi, Rakel Peña eta Kepa Gordejuela EAJko eta EAKo batzorde negoziatzailetako kideekin bildu ziren, hitzarmena jakinarazi zien. Hiru ardatz

ditu: bakegintza, enplegua eta elkartzasuna, eta Europa. Orain koalizio abertzaleari dagokio erabakia, baina hau ez da astelehena arte iritsiko. Mahai Nazionala osoko bilkura egin baino egun bat lehenago bilduko da, eta orduan erabakiko du inbestiduran aldeko botoa eman edo abstentitu. Talde parlamentarioak atzo arratsaldean aztertu zuten txostena.

Larunbatean aurkeztuko dute gobenu ituna • Ibarretxeren hautagaitza Legebiltzarrean aurkeztu zuten Joseba Egibarrek (EAJ) eta Patxi Ormazabalek (EA). Legebiltzarreko araudiaren arabera, osoko bilkura egin baino

hiru egun lehenago aurkeztu behar da hautagaiaren izena, eta atzo aprobetxatu zuten agindua betetzeko.

Aurkezteak, gainera, esan nahi zuen akordioa egina zegoela, eta hala aitortu zieten han zeuden kazetariei. Egibarrek esan zuen akordio programatikoko guztiak hitzartuta zeudela, eta, halaber, Ibarretxeren exekutiboren eraketa. Seigarren legegintzaldiko lehendakariak hamar Sail izango ditu, eta horietatik zazpi jeltzaleek kudeatuko dituzte eta EAK hiru. Antolakuntza azken hilabete hauetan izandakoaren antzeratsua izango da, beraz. Negoziazioako iturrien arabera, EAJk lehendakaritza eta

lehendakariordetza izango ditu, azken hau sail bati lotuta. EAK, berriz, Hezkuntza, Etxebizitza eta Justizia eta Lan sailak kudeatuko lituzke. Aldaketa nabarmenetako bat Industria eta Energiak bat egingo luketela lehen Turismo eta Merkataritza sailean.

Hitzarmena datorren larunbatean aurkeztuko dute Lakuan. Xabier Arzalluzek eta Carlos Garaikoetxeak, EAJko eta EAKo lehendakari gisa. Gero jendarean jakinaraziko dute itunaren edukia, eta kazetarien galderei erantzuteko prentsaurreko iragarri dute. Han izango da, halaber, Juan Jose Ibarretxe. EAK, bestalde, Batzar Nazionala deitu du larunbaterako.

PPk Iturgaitz aurkeztu du

ATZO goizean PPKo talde parlamentarioak Carlos Iturgaitz aurkeztu zuen lehendakari izateko. Arratsaldeko bileran Batzorde Eragileak goizeko aurkezpena berretsi eta Lizarrako Akordioari alternatiba aurkeztu nahi diola azaldu zuen. EAJ eta EAren hautagaiari aurreratu zaionez PP, Iturgaitz izango da hurrengo lau urteotarako egitasmoa azalduko duen lehen hautagaia. Beste hautagairik aurreikusten ez den arren, aurkezteko epea larunbatera arte zabalik izango da.

Ibarretxek botoen gehiengo osoa eskuratu beharko du 29an lehen bueltan lehendakari izendatua izateko. Lehenengo ahaleginetan gehiengo osoa inork ez lortzekotan, 30ean bigarren saio bat izango da eta horretan botoen gehiengo arrunta nahikoa izango da.

PPk eta PSOEek botoa adosteko elkarriketak izan badiotuzte ere, PSOEko iturriek agerian utzi zuten egoera honetan ez dutela Iturzaizen aldeko botoa emango. Sozialisten aldean ondoeza dago, ezen PPrekin adostuz EHk Ibarretxeren aldeko botoa eman behar izatea derrigortu nahi bazuten ere, PPK denbora baino lehenago iragarri duelako.

PSE-EEren Batzorde Iraunkorrek lehendakariarik ez aurkezteko erabakia hartu zuen atzo. Alderdi horrek bere programa «elkar ulertetik eta ez enfrontamendutik bideratu nahi duela» azaldu zuen prentsa agiri baten bitartez. X

ETZI DENOK ESTADIOETARA!

- AGILERA
- ANOETA
- EL SADAR
- SAN MAMES
- MENDIZORROTZA

Bai Euzkara!



HERRI BATASUNA